



3 ETXEBIZITZA

Udalak bi etxebizitza jarriko ditu salgai, enkantean

Ogasuneko eta Ondareko batzordean bide eman zaio udal jabetzakakoak diren eta erakin zaharrea kokatuta dauden enkante bidezko bi etxebizitzaren salmentari. Kale Nagusiko Udaletxe zaharrea kokatuta zeuden Euskarako Departamentuaren eta Idazkaritzakoaren garai bateko dependentsiak dira, 43,43 m²-ko eta 43,33 m²-ko etxebizitzak dira, guztiz eraberritu behar direnak.

5 AISA

Zirkua izango da Aste Santuko irteeran gai nagusia

Pailazoak, malabaristikak, trapezistikak... proba ikusgarriak eta zirkua mundua izango da protagonista aurten Gazte Klubeko Aste Santuko irteeran. Martxoaren 30etik apirilaren 1era egingo da Larraulen 9 eta 12 urte artekoentzako ekintza berezi hau. Dagoeneko irteeran izena eman daiteke Itakuneko bulegoan.



Emakumeen zentroko sexologoa den Oscar Aranda Landaberrin izan zen atzo Martxoaren 8aren inguruan ikasleekin hitz egiten. Gogoetarako tartea izan zen eta ikasleek interesa azaldu zuten gaiaren inguruan. Asteazkenean Guatemalako komunitate batean emakumei aholtsu emateko gauzatutako proiektua eguzteko aukera izan zen.

Asteazkenean Emakumeen egunaren harira Udalak antolatutako egitarauraren baitan, Nazioarteko Elkartzuna GKEko kideak izan Emakumeen zentroan hitzaldia ematen. Erakundeak 2013an Lasarte-Oriako udaletik diru laguntza lerro bat eskuratu zuten eta Guatemalan, Champeriko eskulaldean hain zuzen, 9 hilabeteko iraupena izan zuten proiektua gauzatu zuten. Honen helburua nagusia, emakumei formazioa emana, euren autonomia lortzea zen.

Erakundeak batetik, elikadura burujabetza helburu duen proiektua gauzatu du. Emakumeak nekazaritzan trebatu ditu eta hazi ezberdinak eman dizkie euren lur sail txikietan landatu eta aurrerantzean, esparru honetan nolabaiteko autonomia izan dezaten.

Bestetik, formazio ezberdina egin dira emakumeen eskubideen inguruan, euren eskubideak zeintzuk diren jakin dezaten edota parte hartze legearen arabera, komuni-



Landaberrí BHIko gazteok emakumearen paperrari buruzko hausnarketa egin zuten Oscar Aranda sexologoarekin.

tatean pisua eta ordezkaritza izan dezaketela erakusteko. Dagoeneko batzar ezberdinak sortu eta lanean ari dira.

Hausnarketa

Helduez gain, nerabeez ere parte hartu dute aurten Emakume langilearen nazioarteko eguneko ekintzetan.

Atzo bi txandatan Landaberrí BHI-ko gazteek Oscar Aranda sexologoarekin bisita izan zuten jolas-garaian. Bere laguntzaz gaur egun emakumearen papera zein den hausnartu zuten. Horretarako kirol taldeak edo teibistako iragarriak izan ziren oinarri.

Hainbat izan ziren hausnarketara hurbildu ziren neskek zein mutilak.

Gaur, berriz, Lasarte-Ururbil Institutuko gazteen txanda izango da.

Ekimen gehiago

Ez dira martxoaren 8aren inguruko ekintzak amaitu.

Gaur arratsaldean, 20:00etan, Lan eta Lan antzerki taldearen emanaldia dago Manuel Lekuona kultur etxean. Klasiko bat eskainiko



Asteazkeneko saioko hizlariak Emakume zentroan.

dute, Moliéren 'Tartufo'. Sarreara 3 eurotako da. Osteen, herriko emakumeak Semblante Andaluz elkartearen bilduko dira ederki afalatzeko.

Bihar goizean, 11:00etan, 4 urte baino gehiagoko haurrak ipuinetan murgildu ahalko dira Amaia Arriaran ipuin-kontalariak eskainitako "Do, re, mi, golkua bete ipuin" saioan.

Martxoak 8

Igandean, Emakume langilearen nazioarteko egunean, Okendo izango da bilgunea.

11:30ean, Semblante Andaluzeko Zambra taldeak dantza ikuskizuna eskainiko du.

Eguerdiin, elkarretaratzea izango da eta jarraian, herritarren partaidetzarekin argazkimar bat egingo da.

Ekitaldiei amaiera emateko kalejira bat egingo da herriko kaleetan barrena.

Lasarte-Oriako emakumeak ekintza hauetan eta batez ere, igandean egingo den elkarretaratze eta murallean parte hartzera gonbidatzen ditu Udalak.

Zuregandik hurbil
Ezkerri gure denda berrina, Plaza Oriamendi, 2. (Lehenko Doble J)

Tel: 943 37 78 66
www.ventanasalcar.com

www.facebook.com/VentanasAlcar

Jarraitu gure Facebook orria, gure jantziak, arropa, eta beste guztiak gure orria bidez ikusgai.

PVC, aluminio eta zubi termikoaren haustura, lantzen ditugu

- Leihoak
- Ateak
- Itxiturek
- Armairuak
- Banandak
- Portalak
- Erakusleihoak
- Kontraleiho landatarrak
- Kontraleihoak lama
- Infito eta orientagarria
- Partzialak
- Sareetak

Tel: 943 37 78 66
Tienda @ventanasalcar.com
www.ventanasalcar.com

Jarraitu gure orria, www.facebook.com/VentanasAlcar

ERAKUSKETA
Plaza Oriamendi, 2
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa (Lehenko Doble J)

TALLERRA
Ibaionda, 4 erdizotza 5-4
20160 - Lasarte-Oria
Gipuzkoa

Neure kabuz



Unai Muñoz
Ihesi edo bila

Igande arratsaldetako pelikuletan bezala, ipuin guztietan erakusten digute maiteminarean ameskeria. Nork ez du irudikatu bere burua ilargipean, itas artzoko kresal usainetan korrika, maitetari eskutik helduta? Ordea, apenas dakigu hondartzako muxu horien ostean gertatzen direnez, edo eguneroko bizitzaren gora-beheraz... Maitasuna helburutzat eta lorpenatzat saldua, osotasunerako behar dugun erditzat. Gabeziak bateriko norbanakoak garela ikasi genuela ez ahazteko.

Oraindik sentitzea lortu ez badut ere, uler dezaket perfektuak garela. Perfektuak bakarrik ez, errepika-ezina, munduan bakarrak, eskusiboak, osotasunaren adierazpen oso bat. Laranja osoa. Eta maitasuna? Osotasunen arteko batasunerako tresna, bat egitera garmatzen emulsionatzailea. Tresna guztien legez, erabiltzen ikastea datza sekretuak. Alegia, maitatzen ikasi egin behar da, norbere burutik hasita.

Maitasuna labirinto baten antzekoa dela sentitzen dut. Bide bat hartu eta zuloekin egiten dugun topo, mesfidantzaren hariarekin, eta aukera okerra egin dugula konturatzan gara. Aginte makila hartzen dugu gurera errenditu dadin, edo bere oinetara makurtu ez dadin joan, baina horrela ere bidea amaitu egiten da. Gehiegi batzeko beldurrez urrutindan gara, edo urrunduko garen beldurrez gehiegi batu, eta berdin, ezin topatu irteera. Horrela ikasten da ordea, maitasuna erabiltzen. Horrela ikasten da maitasuna ez dela helburu bat bere horretan, berririo duto, tresna baikiz. Ondorioz, erabiltzen ikasi ezean, geure burua ormaron kontra kolpatuz buka genezake, hain kristaua den kulpak, pipiak egurra lez, barrenak jaten dizkigun bitartean.

Abandouaren beldurra bada gazia eta baldintzarik gabeko maitasuna gozoa, bietatik probatu dugunok, surf taularan gainean goaz, minean erortzeko beldurrez eta olatu hartzeko ilusioz. Beldurrean edo ilusioan, bietako zein lubakitan borrokatuko dugun erabakitzea dugoguri. Ihesi edo bila.

Zorion agurrak



Aner eta Eira
Zorionak bikote!! Ondo pasa zure 1. eta 5. urtebetetzean. Muxu asko familia guztiazen partetik.



Josefa
Zorionak amari, maitasunez zure iloba eta biloban partetik. Beste pila ospatu dituzazula.

Oihane
Jai zinetek berdeztu eretoiko bakiena beti alai zaude berrosa idatziz, lagundu abesten badakizu polizka guztieguru maita.



Oier
Sei txokolatetako muxu, Enaut, aiton-amona eta familiar partetik, ondo pasa zure urtebetetzean bihotza.



Lur
Zorionak nenilla, 9 muxu amatoxoeta aita-toxoren partetik.



Iker eta Jose Antonio
Zorionak txapeladuna! Biontzat urtebete gehiago! Gozatu zuen egunare ingurukoekin! Muxu bana Laura, Ana eta Maitaneren partetik.



Naroa
Zorionak printzes! Handitzen, handitzen. Hamabi muxu goxo familia guztiazen partetik.



Iune
Gure erreginari 2 muxu erraldoi. Zorionak eta oso ondo pasa zure egunean!



Eneritz
Zorionak bihotza zure 8 urtebetetzean! Ondo pasa eguna eta muxu pila familiar partetik.

Azoka txikia

Higiezin Eskaintza

- Garaje bat saltzen dut Anxoeneako plazan, kiroldegia ondoan. 610 73 32 64.
- Etxe bat alokatze da Oria auzoan. 666 28 62 64.
- 44m2ko etxe goxoak saltzen dit sagardotegi kalean. Duela 2 urte osorik berrituta. Harremanetan jarri eta etorri ikustera. 635 75 00 20

Lan-eskaria

- Interna bezala lana bilatzen dut adinekoen zaintzan. Esperientzia eta paperekin egunean diut. 645 78 72 72
- Euskarra, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere preste. Ekonomikoa. 600 76 60 68.
- Emakume eskaintzen da interna moduan edo orduka arratsalde epeko lanak, garbiketa, platerak garbitu edo helduak zaintzeko. Esperientzia eta paperekin. 619 80 31 99.
- Emakume eskaintzen da arratsalde garbiketa lanetan edo zaintzan lan egiteko. Pape-

rik eta esperientziarekin. 666 70 89 63

- Interna edo externa moduan garbiketa edota zaintza lanak egiteko emakume preste. Tabernan lan egingo nuke ere. 676 18 84 11 / 645 53 04 90
- Etxeko lanak egiteko emakume eskaintzen da, umeak zaindu, adineko pertsonak. Esperientzia eta erreferentziak. 648 63 00 16 Kontxi.
- Emakume eskaintzen da garbiketa lanetan edo zaintzan lan egiteko. 632 22 99 72
- Garbiketa lanetan edo zaintzan lan egiteko preste. 602 07 29 59
- Emakume eskaintzen da taberna edo zaintzan orduka edo externa moduan lan egiteko. 645 53 04 90
- Etxerako langilea eskaintzen da. Interna edo externa moduan lan egiteko. 676 18 84 11

Bestelakoak

- Emaztegia eta almirantearen jantzi bana jaunartzerarako. Merke. 943 37 00 92

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Carla Tabuzi Zelarain marxoaren 1ean.
- Aiora Iparragirre Ekdur-dea otsailaren 28an.



Heriotzak

- Jose Luis Viciano Cerdán, marxoaren 5ean, 50 urte zituela.
- Elvira Torre Aramburu, marxoaren 1ean, 76 urte zituela.
- Josefa Goñalez Garcia, otsailaren 25an, 92 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 06	Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Larunbata, 07	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 08	Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 09	De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Asteartea, 10	Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 11	Urbistondoa, San Franzisko 1	943 366567
Osteguna, 12	Gandiarra-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521

GAUEKOAK: 22:00-09:00, eguneroko
Echeveste Elosegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osoan Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gornia	943 363953
Udalzaintza	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Udalaren telefonoak

Erregistroa	943 371629
Euskarako Zerbitzua	943 376184
Kiroldegia	943 376182
Kulturetxea	943 376181
Gizarte Zerbitzuko	943 376179
CUAB	943 361605
Udal eskualtegia	943 361621
Muntteri AEK	943 372863

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDAL A

Txintxarrik ez du bere gain hartuko iritzi-artikuletan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



GFAko Kultura eta Euskarri Departamentua

Argitaratzailea:

Txatun Kultur Elkarte
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448

C-20407557

Legezko gordailua:

SSS13/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7800

txintxarri

Eredakzioa:
Majider Azumendi, Nerea
Ezagrago, Jon Altuna E.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea eta administrazioa:

Aiarza Arriola

publizitatea@txakun.com

administrazioa@txakun.com

Laguntzailea:

Unai Muñoz, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Malu Armat,
Aisler Oñativia, Maiten Segura,
Gorka Alvarez, Josu Arriola, Peko
Aizpirta, Edu Galardi

Informakioa:
Xabier Amadoz

ETXEBIZITZA

Udalak bi etxebizitza jarriko ditu salgai, enkantean

Udaletxe zaharreen bulego funtzioa betetzen zuten

Ogasuneko eta Ondareko batzordean bide eman zitzaion udal jabetzakokoak diren eta eraikin zaharreen kokatuta dauden enkante bidezko bi etxebizitzaren salmentari. Kale Nagusiko Udaletxe zaharreen kokatuta zeuden Euskarako Departamentuaren eta Idazkari-tzakokoaren garai bateko dependentsiak dira.



Estitxu Alkorta Ogasun Batzordeko burua asteazkeneko prentsaurrean.

Adjudikaziozko prozedura

Gutun-estalki bidezko enkantearena izango da adjudikaziorako erabiliko den prozedura.

Bi etxebizitza horien erosketaren interesatuek egon daitezkeen herritar gutzietatik dagokion iragarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hurrengotik aurrera aurkeztu ahal izango dituzte euren proposamenak. Iragarpena, datoen egunetan argitaratuko dela azaldu du Alkorta.

Datuen egunetan, enkantearen arautzen duen baldintzagiria Lasarte-Oriako Udaleren Kontu-hartzailetzako Departamentuan aztertzen ahaliko da.

Kale Nagusia 22 helbidean, 9:00etatik 13:00etara. Hala-ber, egun gutxi barru kontsultatu ahaliko da Lasarte-Oriako Udaleren www.lasarte-oria.org webgunean.

"Bi etxebizitza hauen salmentaren operazioa Lasarte-Oriako EAJko udal taldeak Bilduren udal gobernuarekin indutudatuko proposamen bat izan zen 2014ko aurrekontuak negoziatzeko garaian eta bost hilabete itxaron dugu alkatetzak operazioa aktibatu arte. Salmentaren operazioa honek guztei erantzunak ematea, udal dependentsiak berreraileak eta Udalak beste inbentsio batzuetarako diru-sarrerak jasotzea du helburu", adierazi du Alkorta.

BIYAK BAT

Lizarrara iteera martxoaren 16an

Biyak Bat erretiratuen elkarteak lagunek iteera denboraldiari hasiera emango diote martxoaren 16an. Lehenengo bidai honetan Lizarra eta bere inguruk bisitatuko dituzte.

Izen-emate epea dagoeneko ireki da. Elkarteak bazkideek 35 euro ordaindu behar dituzte eta bazkide ez direnek, aldiz, 40 euro. Interesatuak elkarteak bulegora hurbildu behar dira astelehenean ostirala, 10:30etik 12:30era.

Biyak Bat elkarteak herritarak eta batez ere, bazkideak animatu nahi ditu iteera parte hartzera.

GAZTE-KLUBA

Udalekuen argazkien emanaldia

Iaz Gobiaran eta Donemilgako udaleku itxietan egon ziren gazteentzat argazkien proiektioa egingo da datorren ostiralean, martxoak 13, 17:30ean Gazte Klubean, Ola kalean, 1 zenbakian.

E-LIBURUTEGIA

Liburu elektronikoen mailegua ikasten

Geroz eta ohikoagoa da paperean beharrean, liburak gailu elektronikoen bitartez irakurtzea. Eskaria gora doala ikusita, udal-liburutegia ere zerbitzu nola erabili irakatsi nahi izan ziren herritarrei. Funtzionamendua azaltzeko Manuel Lekuonan bildu ziren hainbat herritar. Liburutegiko arduradunek bertatik bertara erakutsi zizkieten liburuaren mailegua egiteko jarraitu beharrekiko urratsak. Hemendik aurrera, azken nobedadeak e-liburutegia bitartez maileguen eskatu ahal izango dira. Liburuk liburuklik.euskadi.net orrialdearen bidez eskatu daitezke. Lehenabiziko nobedadeak agertzen dira, lehen orrialdean. Dena den, generoko, egilega, gaika edota editorialak ere bilatu daitezke liburuk. Haur eta helduentzako liburuak daude jadanik, gehienak gaztelaz daude, 4.500 inguru eta euskarazkoak ia 400 dira.

E-liburutegia e-reader, Android, iOS edota PCtarako balio du. E-liburutegia zerbitzuetaz gozatzeko beharrezkoa da tabletek, liburu elektronikoez edota ordenagailuek Adobe Reader programa jaitzia izan dezaten. Behin Adobe Reader eskuratu, liburuklik.euskadi.net gunean erregistratu beharko dute herritarrek erabilzaila eta pasahitz bat sortuz.



TXINTXARRI

Etxebizitza gisa eskirituratuak daude eta, orain dela oso gutxira arte, bulego bezala erabillik izan dira. 43,43 m²-ko eta 43,33 m²-ko etxebizitzak dira, gutziz eraberritu behar direnak.

Enkanterako gutxieneko prezioa Udaletxeako arkitektoak tasatutako oinarritut hartuz finkatu da, Estitxu Alkorta Ogasuneko buruak azaldu duenez, %25 merktuta. Hauek dira bi etxebizitzak: Kale Nagusia 24, 1^o Esk. (43,43 m²), 62.561,61 eurotan eta Kale Nagusia 24, 1^o Esk. (42,33 m²), 63.289,59 euroko prezioan.

Ipar martxa praktikatzeko hitzordua

Takunek urtarilean antolatutako ipar martxa ikastaroek oso harrera ona izan zuten eta gutxira lau talde aritu dira hilabete hauetan zehar saio ezberdinetan kirol honetan trebatzen.

Guztiak oso pozik geratu dira ikastaroak emandakoekin eta bi irakasleak prest azaldu dira doan iteera batzuk egiteko bertan parte hartu dutenekin edota dagoeneko ipar martxa praktikatzeko duten herritarrekin.

Bi hezitzaileek esan dutenez, prest daude asteen bi egunetan iteera hauek modu informalean eta lagun artean egiteko. Horregatik da garrantzitsua aurrez ikastaroetan aritukoak izatea, ez dira eta ikastaro moduko saioak izango, baizik eta elkarrekin kirol hau praktikatzekoak.

Rosarekin astelehenean



Ipar martxa ikastaroetan gustora aritu dira parte hartzaileak.

19:15etatik-20:15etara egin ahal izango dira paseo hauek eta Begoñarekin berri, ostiralean 17:45etik-18:45erako ordutegian.

Hauetan parte hartzeko ez da aurrez izena eman behar. Hitzordua, egun hauetan Hipodromo zubian izango da bertaratu nahi dutenentzat.

Horretaz gain, hilean behin Lasarte-Oria inguruan itereak antolatzeko asmoarekin hiru hitzordua aurreikusten dituztela jakitera eman dute; martxoaren 21ean, apirilaren 25ean eta maiatzaren 16an.

Bi orduko iraupena izango dute itereek eta 10:00etan Okendo plazatik abiatuko dira.

GEDren 'oihal-martxa'



Gure Esku Dagoren 'Oihal marxa' iragartzeko kartela.

Bihar "oihalez jantzi" nahi duen Gure Esku Dagoko kideak Lasarte-Oria. Goizeko 11:00etan Andatza plazan elkartuko dira eta kalejiran Sasoa eta Zumaburu "kolorez zintziritzen" da asmoa.

Martxa Okendon amaituko da, tutore eta sareetuek jasoko dituzten oihalak bertan zintzilikatu.

"Dagoeneko 900 gara, 45 tutoreen bueltan elkartu garen herritarak. 900 sareta. Eta ekainaren 20rako 1500 izango gara", adierazi dute ekimenaren bultzatzaileak.

"Oraindik saretu ez baza, zator bihar informatu eta saretzera, gurekin etorkizuna ehuntzera", luzatu dute gonbita antolatzaileak.

Kudeaketa gastuetan murrizketa

EH Bilduk legealdi honetan milioi 1 euro aurreztu duela azaldu zuen agerraldian

Pablo Barrio alkateak eta Nerea Sanchez alkateordeak agerraldia egin zuten atzo EH Bilduren gobernuak Udalaren kudeaketan dirua aurrezteko hartutako hainbat neurriren inguruan azalpenak emateko. Hauen hitzetan "arduraz jokatu eta gehiegikeriak desagerrarazi" dituzte bukatzean agintaldi honetan.

TXINTXARRI

EH Bilduk gobernu hartu zuenean, helburu garbi bat zuela aipatu zuten alkateak eta Nerea Sanchez alkateordeak; "Lasarte-Oriako Udalaren kudeaketa arduratsu bat egitea, iraganeko diru-xahuketak berriro ez errepikatzeke".

Lau urteren ondoren, "garrantasunaz jokatzeko" eta balantzea egiteko ordua zela aipatu zuten. Azaldu zuten, "kudeaketan egindako aldaketari esker, lau urteotan gutzira 1.000.000 euro baino gehiago aurreztu dira politikarien soldatetan, telefono deietan, alkateetako protokoloetan, dietetan eta publizitateko gastuetan".

Politikariak langile-klasean kokatu nahi izan dituztela aipatu zuten, "lan-baldintza duinak bermatzen saiatu gara, eta herritarrekin eskubideen berdintasunean oinarrituriko harremanak izan dira gure lan-tresna. Modu horretan,

opari, mesede edo jokoera personalistak albo batera utzi ditugu, eta Udala guztiona egiten saiatu gara".

Hasi eta berehala "politikarien gehiegizko soldatak jaiste eta aholkularien kopurua murriztea erabaki genuen. 2010ean alkateak 72.292 euro zuzitan zituen urtean, eta gutzira PSEko sei zinegotzietan eta bost aholkularien soldaten batura 495.723 eurokoa zen. Gobernu berriak, alkateari 40.160 euro eta gutzira politikari eta aholkulariei 282.864 euro ordaindu dizkie. Diferentzia, 212.859 eurokoa izan da urtean, %43.

Sanchez eta Barrioren esanetan, telefono-gastuek zeresan ugari eman dute, "aurreko agintaldian, batz besta 13.882 euro gastatzen ziren urtean, eta gaur egun 2.328 euro, %84 gutxiago. Gainera, eguneroko kudeaketa hutserrako erabiltzen den tresna moduan ulertuta, 2006ko gastuak 24.249 eurokoak izatea



Pablo Barrio eta Nerea Sanchezek azaldu zuten kudeaketa gastuetan aurreztutakoa.

harrigarria iruditzen zaigu, eta etorkizunean arazorik sor ez dadin kontu ematea beharrezko ikusten dugu".

Dietak %80 murriztu

Udal-gobernuak "egin ohi ziren alkateetako publizitate-gastuak gehiegizkotatzen genituen, eta ondorioz murriztu ziren". 2003. urteetik 2010. urtera batz beste urtean 35.022 euro gastatu ziren agerraldian azaldu zenez, eta agintaldi honetan, 8.060 euro gastatu dira. "Ia bost aldiz gutxiago erabili da beharrezko jakinarazpenak eta publizitate

egiteko". 2008an ia 60.000 euro gastatu zirela azpimarratu nahi izan zuten, "egungo gobernu ez da urtean 10.000 euro gastatze-ira iritsi".

"Alkateetako protokoloa eta dietek hainbat gastu ulergaitz bildu izan dituzte historikoki. 2003-2010 urteen arteko batz bestekoarenkin alderatuta, %80 batean murriztu dira gastu horiek azken agintaldian. Orduan 25.792 euro gastatzen ziren eta gaur egun 5.275 euro. Gainera, zenbait urtean gastuak oso altuak izan dira. Adibidez, 2006an 42.050 euro gastatu ziren eta

gure ustetan kopuru hori ez da beharrezkoa".

Guztia hauek azalduta, udal-gobernuak agintaldiaren balorazio positiboa egiten zuela esan zuten.

Laburbilduz, Sanchezek esan zuen gastuak kontrolatu egin dituztela, eta beharrezko murrizketak egin direla gehiegikeriarik ez egoteke.

"Kudeaketa-eredia hobetu dugu, eta herritarrekin datu guztiak partekatu nahi ditugu, garrantasun osoz, etorkizunean aldatuko ez den oinarri bat eta lan egiteko eredu bat ezartzeko helburuarekin".

San Juan baleontzia eta kantujira ederra

Ehun bat lagun bildu ziren lehengo larunbatean Oinatz taldeko lagunek Xumela kouruarekin batera Pasaia eta zehazki, Albaloa museora antolatutako irteeran.

Irteera honetan bi aukera zeuden, Pasaia oinez iritsi edo autobusez zuzenean museora joatea.

Honela taldeetako batek eguraldiari aurre eginaz, Donostiako Pasai San Pedro-rainoko ibilbidea egin zuten Ufia menditik barrena. Kostatu bidea eginaz, erraz iritsi ziren Pasaiko itsasdarrean dagoen Albaloa museora.

Bigarren taldeetako berri, zuzenean Albaloa museora joan eta bisita egin zuten.

San Juan baleontzia

Albaloa museon baleontzi baten eraikuntza nolakoan zen ezagutu ahal izan zuten. Izan ere, Donostiako San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiributzairen baitan eta Kanadako Gobernuaren

laguntzarekin XVI. mendeko San Juan baleontziaren erreplika egiten ari baitira.

Taldeak baleontzi honen historiaren berri izan zuten. San Juan baleontzia Pasaian eraiki zuten, Euskal Herritik Tenuara baleak harrapatzerako joaten zen eta Kanadako kostalden hondoratu zen.

1978an arkeologo kanadiarrek itsasi indusketa bati esker aurkitu zuten. Indusketak 30 urte iraun ditu eta honen ondorioz, ontziaren nondik norako guztiak ezagutu eta jatorrizko lehengaiak eta teknikak erabiliz ari dira San Juan baleontzia eraikitzeko. Esate baterako, Ebro haranean kokatzen diren hiru herrietan landatu dituzten era tradizionalen zortzi kalamu hektarea San Juan baleontziak beharko dituen belen lonak eta sokak ekoizteko.

Honetaz gain, bisita eskaldunek bale harrapaketa eta baleontzien eraikuntza izan zuten garrantzia ere ikasi zuten.



Oinatz eta Xumelako lagunek San Juan baleontziaren erreplika nola egiten den ikusi ahal izan zuten.

JOSU AGRRETXE

Kantujira

Bisitaren ostean, txalupa hartu eta itsasdarra zeharkatu zuten Pasai Donibanera.

Lehen taldean zeuden Xumela koruko lagunek, Zarauzako Montetxio koruko zein Hondarribiko Olagarro koruko kideekin bat egin eta

kantujira ederra egin zuten Pasai Donibaneko kaleetan barrena.

Bigarren taldea museoiko bisita amaitzen hauekin batu zen eta guztiak batera, kantuan hurbildu ziren jatorreko. Irteerari amaiera emateko bazkaloste ederra egin zuten.

Hurrengo irteerak

Oinatz taldeko lagunek irteera gehiago aurreikusten dituzte hurrengo hilabeteetarako. Probitzita ezberdinetako leku paregabeak dituzte mahai gainean, baina egunak zehazteke daudela azpimarratu dute.

Zirkua munduan murgiltzen

Ederki gozatzeko irteera izango dute gazteek Aste Santuko lehen egunetan

Pailazoak, malabaristak, trapezistak... zirkua nagusi izango da aurten Gazte Klubeko Aste Santuko irteeran. Martxoaren 30etik apirilaren 1era, herriko gazteek Larraulera bidaiatu eta zirkua munduko sekretuak ikasiko dituzte. Tailer berezi, gaubela edo sukaldaritzarekin primeran pasatzeko aukera izango dute.

TXINTXARRI

Lasarte-Oriako 9 eta 12 urte arteko gazte txokoak lagun artean Aste Santuari hasiera bikaina emateko aukera dute Larraulera.

Hiru egunez, martxoaren 30etik apirilaren 1era, Aste Gazte berezia antolatuko dute Gazte Klubeko arduradunek Zirkulua izeneko eta honetan, zirkua munduan murgilduko dira gazte txokoak.

Zirkua erekin zer ikusia duten hainbat tailer egingo dituzte, malabark, karioka edo marmokak nola erabili ikasi, ikuskizunetarako nola makillatu... eta hauetan guztietan jasotako ezagutzeekin gainera, show berezi bat prestatuko dute martxoaren 31eko gaubelarako.

Hau guztiaz gain, arduradunek aipatu ditugenez, eskuak zikindu eta lapiko artean sartzeko aukera ere izango dute gazte txokoak aforatutako batean dastatuko dituzten pizza edo cupcake berezi eta gozoak sukaldatuz.

Oharrak

Aste Gazteko irteera berezi honetako autobusa martxoaren 30ean goizeko 11:00etan Jubilatuen geltokitik aterako da eta milaka auaentzia bizi ostean, apirilaren 1ean 13:00etan izango da buelatan.

Gazte Klubeko lagunak ohartarazi dutenez, lehen eguneko bazkaria eta merienda gazte txokoek eraman beharko dute etxetik prestatuta.

Izena ematea

Zirkua berezi honetan izena emateko 943 371 448 zenbakira deitu edo Itakuneko bulegoan hurbilteza besterik ez dago.

Hiru egunetako irteera honek 50 eurotako prezioa du, Itakuneko bazkideentzat izan ezik. Hauek 47 euro ordainduko dituzte.

Ordainduta Itakuneko bulegoan txartelaz edo Kutxabank-en egin behar da.

Aste Gaztean Zirkua mundua ezagutu nahi duten



Baserrin mundua eta herri kirolak izan ziren Aste Gaztean. Aurten ikuskizuna izango da nagusi Zirkuluan.

gazte txokoek martxoaren 26ra arte dute izena emateko. Ez galdu aukera plaza mugatuak dira eta.

Guraso bilera

Gainera, gurasoek irteera honen xehetasun guztiak ezagutu ditzaten, bilera bat egingo

du martxoaren 26an, arratsaldeko 17:30ean Osasun Zentro berriko bigarren solairuan.

San Pedro Jaiaik prestatzeko bilerak abian



Asteartean egin zuten lehenengo bilera kultur-eretan.

Dozena bat lagun elkartu ziren Manuel Lekuonako bilera gelan 2015eko San Pedro Jaiaik pixkanaka antolatzen hasteko.

Aurrez, herriartean proposamenak jaso zituen Udalak eta asteartean bertan izan egindako gaiza positiboak eta negatiboak baloratu zituzten. Elkarte ezberdinen iritzia entzun eta herriartek egindako proposameak aztertu ostean, "programaren zirriborroa" egitea da asmoa Taxio Arriabalaga Gazteria, Kirola eta Festak sailako zinegotziak azaldu moduan.

"Lan-dinamika sinplifikatu eta efektiboagoa egin nahi izan dugu aurtengoa, bilera gutxiago eta produktiboagoak egin nahi ditugu, betiere parte-hartze mugatu gabe", adierazi zuen Taxio Arriabalaga.

Prozesu hau beharrezkoztat jotzen du Udalak, "ahalik eta festa herrikoienak" gauzatzeko: "Azken urteotako filosofia berdinarekin jarraitu nahi dugu. Herriko elkarteek guzta mordoan antolatzen dute festetan eta beraien protagonismoa eman nahi diegu", esan zuen zinegotziak.

PREST



MONDRAGON
UNIBERTSITATEA

GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

GOIERRI - MARTXOAK 14
Larunbata, 10:30 / Aretxo Nagusia

ARRASATE - APIRIKAK 16
Osteguna, 17:30 / Aretxo Nagusia

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI - MARTXOAK 14
Larunbata, 11:00 / Aretxo Nagusia

BIDASOA - MARTXOAK 28
Larunbata, 11:00 / Aretxo Nagusia

HUMANITATE ETA HEZKUNTZA ZIENTZIEN FAKULTATEA

ESKORIATZA - MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Aretxo Nagusia

ARETXABAETA - MARTXOAK 7
Larunbata, 11:00 / Aretxo Nagusia

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA - MARTXOAK 21
Larunbata, 10:30 / Auditoriuma

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI
902 110 436
www.mondragon.edu/prest



Aner Urruzuno,
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza,
2. maila.



LABURRAK

Axier Arteaga finalurrekoan kanporatu dute afizionatuetako Soroaren Oroimenezkoan

Axier Arteaga Intza Keko pilotariak Soroaren Oroimenezko finalurrekoak jokatu zuen igandean Tolosako Beotibarren. Eros-tarbe izan zuen bikote eta Iribarria eta Arratibelen aurka neurtu zituzten indarrak. 22-3 galdu zuten Arteagak eta Eros-tarbek. Ez zen nolanhiko partidua izan, Iribarriak Aspe enpresarekin debuta egingo baitu martxoaren 22an. Iribarria aurreko koa-droetan nagusi izan zen, hein handi batean, atzelariaren arteko borrokan Arratibel Eros-tarbe baino dezente hobeto aritu zelako.

Bestalde, Aritz Solano Intza Keko pilotariak eta Julen Loitegi urrietarrak I. Mailako Gipuzkoako senior txapelketako finala jokatu dute igandean Iruran, laugarren partidua 16:15ean hasita. Behar Zana izango dute aurkari. Solano eta Loitegi zuzenean sailkatu dira finalera ligaxkan lehen postua eskuratuta.

Intza KEK harrobian egiten duen lana fruituak ematen ari da seniorretan. Axier Arteaga ezker-parean eta Mikel Landa eta Aritz Solano trinketea, Gipuzkoako selekzioak deitu ditu GRA-VNI txapelketan parte-hartzeko. Parean izango dituzte Errioxa, Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldeko pilotariak.

Itziño Ibarburuk zilarra lortu du Cadizen, juniorren Espainiako Neguko Txapelketan

Otsailaren 26tik martxoaren 1era bitartean Itziño Ibarburu Buruntzaldea IKT taldeko igerilaria Cadiz-en izan zen Junior mailako Espainiako Neguko Txapelketan parte hartzen. 100 eta 200 tximeletan eta 100, 200 eta 400 libre aritu zen. Iazko txapeladunorde izanik, domina aukera nagusiak 100 tximeletako frogan zituen eta ez zuen hutsik egin. Zilarrezko domina, 56'05eko marka pertsonala eta taldeko errekorra ekarri zituen Cadizetik.



“Orokorrean, proba gutzieta, bikain aritu da Itziño eta pixkanaka estatu mailan bere tokia hartzen doa, aurrera begira gada gada beharrezko den pausua bete. Martxoaren bukaeran Espainiako Open Txapelketa absolutua izango du eta bertan bereziki tximeleta estiloko frogetan ahalik eta onena emaitza saikatu da”, adierazi du Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTKo entrenatzaileak.

Bartzelonan, Tenerifen, Durangon eta Hernanin lehiatu dute LOKEko judoek

Bartzelonako Nazioarteko Kopan izan ziren lehian Esteban Martinez eta Asier Sagasti izan zen asteburuan. Konbate onak egin arren, ezin izan zuten emaitza onak eskuratu.

Durangoko Torneoan ere izan zuen ordezkaritza LOKEk. Xabier Morales alebinak urrezko domina eskuratu zuen Bizkaiko lurretan. Arratsaldean, Hernanin, Gipuzkoako Txapelketa jokatu zuten kadeteek. Zilarrezko domina bat jantzi zuen Haritz Urdangarinek, hiru konbate ipon bidez irabazita eta finala-lean oxta-oxta galduta. Jon Herreok brontzea jantzi zuen bere lehen txapelketa ofizialean eta Mikel Lasak ere parte-hartu zuen. Infantilek probintzia mailako 2. jardunaldia izan zuten Hernaniko tamainan bertan. Hiru lehenengo postu eta hirugarren postu bakarra eskuratu zituzten Gorka Aristegirenek. Ander Garridik, Jesus Curielek eta Alex Saletak eskuratu zituzten garaipenak eta Erik Bemejo izan zen hirugarren sailkatu zena. Parte-hartu zuten besteak Julen Espinosa, Unai Posada eta Garikoitz Mena izan ziren.

Azkenik, Kanariar Uhartetatik berri onak iritsi ziren Lasarte-Oriara. Tenerifeko Grandilla Torneoan, Espainiako Infantilen Koparako puntuagarria den proban, Yeray Mendibek brontzea kolkoratu zuen txapelketa handi bat osatuta.

Datorren hitzorduak martxoaren 14an Infantilen Gipuzkoako Txapelketa eta 15ean Kadeteen Euskadikoa dira eta bi lehiaketa horietan parte-hartuko dute Gorka Aristegiren LOKEko judoek.



ATLETISMOA

Gaizka Ormazabal Gipuzkoako txapeldun

200 metroetan 22,50eko marka pertsonala egin du

Gauzak ateratzen ez direnean bi aukera daude. Etsitzea, ‘kitto’ esan eta amore ematea ala behin eta berriz saiatzea helburua lortu arte. Bigarren aukera hartu du Gaizkak atletismoan daramatzan zortzi urteetan, beti. Denboraldi txarrak, gogorrak, izan ditu, baina iritsi zaio merezitako saria.



Super Armara - BAT taldeko errekorra da Gaizka Ormazabalen, pista estalian.

JON ALTUNA EGITEGI

Entrenatzaera ate horretatik sartu zen lehenengo eguna atzo balitz bezala oroitzen dut, ez zen ia hanka bat bestearen aurrean fundam-entuz jartzeko gai, apenas zeukan maila nahikorik konpetituzeko eta begira orain... Oso harro nago Gaizkak lortu duenaz, eruedu da”, dio Oscar Goikoetxea prestatzaileak.

Lana, disziplina eta konstantzia. Hiru osagai horiek in-egiten zaio aurre talentu eska-siari. Hiru osagai horiek daude edozein txapeladunaren egune-roko menuan. Edateko berriz, ilusioa. Entrenatzeoko garriz zapatilak lotzea ezinbestekoa da emaitzak eskuratzeko. Eta horretan, taldekideen babesak garrantzia handia duela garbi utzi du Ormazabalek.

Lasterketa bikaina egin zuen lasarteoriatarrek ingande eguerdian Antonio Elorza belodromoan. Egiaori zu, bi lasterketa on burutu zituen. Finalera sailkatzeko balio izan

zian 22,70ekoa eta finalean bertan Gen Abreu taldekideari aurrea hartuta egingako 22,50 segundoko marka handia.

“Denboraldiko helburua bete du, nahi nuen bezala egin zuen lasterka finalean. Azkar hasi zen, lehen metrori aurrak ekin zien eta bigarren kurbako jaitsera oso gustatu zitzaidan, indartsu amaitu zuen aurrez egingako lan fisiko gogorriari probetxua aterata”, adierazi du Goikoetxea. Gainera, aurren 400 hesietako parte alde-bera utzi izanak “gutxiago lesio-na” lagunduko diola uste du entrenatzaileak eta horrek mesede egingo diola psikolo-gikoki gora egiten.

Herritarrek helmuga marra zeharkatu orduko bi besoak Donostiako zerura jaso zituen. Hainbeste borrokatutako eta sufritutako marka iritsi zi-tzian, lortu zuen: “Nire burua presionatzen utzi diodanean hasi naiz benetan atletismoaz disfrutatzen, eta emaitzak beretz etorri dira. Eskerrik asko lagundu nauten gutzietei”.

Lasarte-Oriako pistako kapitai-naren hitzak.

Domina gehiago

Ez zen lasarteoriatarren urrezko domina bakarra izan. Itziño Sevillano Realeko atletak 8,62 segundotan gelditu zuen kronoa 60 metroetan eta Gipuzkoako txapela jantzeko balio izan zion marka horrek. LOKEko Maider Reskondok zilarra erdietsi zuen pisu-jaur-tiketetan 11 metroko jaurtiketa eginginda eta asteburuan Valen-zian jokatu duen Junior txapelketa-rrako gutxienekoa lortu zuen horrela.

Ane Galardik hiru domina jantzi zituen. Luzera jauzian hirugarren postuarekin konfor-matu behar izan zuen 5,07 metrorekin. 60 metroetan ere brontzea erdietsi zuen 8.02ko marka on lortuta. Aurretik zuen denbora 15 ehuneneko-tan hobetu zuen. Jauzi hirukoitzean 11,18 metroko gehaldia eginginda zilarrezko domina lortu zuen eta Galardi ere Valentzian izango da.

KIROL AGENDA

FUTBOLA

- Larunbata 7
Michelin, 12:00etan
Ostadar SKT - Vasconia
Kadeteak I. maila, Kopa
8. jardunaldia.
- Michelin, 13:30ean
Ostadar SKT - Añoraga
Infantilen Ohorezko Kopa
6. jardunaldia.
- Don Bosco, Errenteria 17:00etan
Danena - Texas Lasarteoriarra
I. Errejonaldia, Kopa
8. jardunaldia.
- Michelin, 17:15ean
Ostadar SKT - Lengoaik
Jubenilen Ohorezko Maila
22. jardunaldia.

- Martutene, Donostia 18:00etan
Martutene - Ostadar SKT
Ohorezko Errejonaldia
25. jardunaldia.
- Ingandea 8
Michelin 11:15ean
Ostadar SKT - Urola
Infantil Txiki Errejmendua, Kopa
1. jardunaldia.
- Martutene, Donostia 13:00etan
Amara Berri - Texas Lasarteorra
Jubenil I. Maila,
Kopa
9. jardunaldia.
- Gobela, Getxo 16:00etan
Romo - Ostadar SKT
Kadeteak Euskal Liga,
24. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

- Ostirala 6
Michelingi kirol-gunea, 19:45ean
Insauti - Txindokki
Michelingi kirol-gunea, 20:45ean
Bar Also - Reformas Lagunak
Larunbata 7
Michelingi kirol-gunea, 9:15ean
Idoñia Taberna - Urdaneta HK
Michelingi kirol-gunea, 10:15ean
Viña del Mar - Indaux
Michelingi kirol-gunea, 11:15ean
Buenos Aires - Trunoi
Michelingi kirol-gunea, 12:15ean
Iargi - Bar El Punto

ERRUGBIA

- Larunbata 7
Michelin 10:30ean
ZRT Beltzak - Gaztedi, sub 14

— Agenda —

Bihar, Manuel Lekuonan 17:00etan



Denboraren garrantzia

"Molli Malone" haur antzerkia izango da Txalo produktzioak-en eskutik bihar Manuel Lekuonan. Mollie Malone, neska oso berezia da, bere aitoren erloju-dendara doa bere urtebetetzean. Ustekabean, abentura zirraragarria biziko du eta lau pertsonaia berezi eza-gutuko ditu. Konturatuko da zein garrantzitsua den denboraz gozatzeta. Istorio majiko eta dibertigarriak bukaera harrigarriekin. Euskaraz. Sarrera 3,80 euro.

Martxoak 8

SEMBLANTE ANDALUZ
Gaur, ostirala, 21:30ean
Semblante Andaluzek Udalarekin elkarlanean, herri afaria antolatu du. Musika eta dantza izango dira.

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Larunbata, 11:00etan
"Do, Re, Mi, golkuia bete ipuin" izenburupean 4 urteik gorakoentzat ipuin kontalari saioa. Doan.

OKENDO

Igandea, 11:30ean
Semblante Andaluzen Zambra taldearen emanaldia.

OKENDO

Igandea, 12:00etan
Emakumeen nazioarteko eguna ospatzeko elkarretaratzeta. Herritarrek inargaki-marrakiz mural bat osatuko da eta amaitzeko trikitilari-ekin kalejira.

Lasarte-Oria

Zinema

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Igandea, 17:00etan
"Alexander y el dia terrible, horrible, espantoso, horroroso" filma haurerentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

Igandea, 19:30ean
"Rastros de Sándalo" filma ikusi ahal izango da helduen zinema atalean. Sarrera 5,50 euro.

Antzerkia

MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA

Gaur, ostirala, 20:00etan
"Tartufo" antzezilana Lan eta Lan antzerki taldearena. Gaztelaz. Sarrera 3 euro.

UDAL-EUSKALTEGIAN

Asteazkena, 18:00etan
Eta hik zer? antzerki-foruma. Antzerkia hezkuntza metodo eta erralitate aldaketek tresna bezala hartuta, egungo testuinguru sozial eta politikoa bizikidetzeta eta elkarbizitza sustatzeko egitasmoa da. Edozeinentzat irekia, eta bereziki, eguneroko gatazkak gainditzeko jarrera aktibo bat hartu nahi dutenentzat. Espazio parte-hartzailea da, hiru galderen inguruan hausnartzeko: zer gertatu da eta zergatik? Zer egin dezakegu orain? Zer egin dezakegu etorkizunean errepika ez dadin? Antolatzaleak, Donostia 2016 eta Baketik, Lasarte-Oriako Udalaren laguntzaz. Aurrez izena eman behar da 688 68 14 66 telefonoan.

Musika

ATSOKAKAR EGOITZAN

Igandea, 11:00etan
Carlos Rosat flautista, Mario Telenti piano-jotzailea eta Tomas Ruti fagot-jotzailearen eskutik, musika eta olerki errezitaldiak gozatzeko aukera.

Jaia

ANDATZA PLAZA

Larunbata, 11:00etan
Oihalez jantziako dute Lasarte-Oria Gure Esku Dago eminekoko partaideek. Kalejira antolatu dute Andatza plazaetik Okendora. Bertan tutore eta saretuak jasoko dituzten oihalak zintzilikatuko dira. 45 tutore eta 900 herritar inguru ari dira ekimenaren parte hartzen eta gehiago animatu nahi dituzte honekin.

Astigarraga

Bertsolaritza

KULTUR-ETXEA

Larunbata, 20:00etan
'Ez da Kasualitatea', bertsio musikatuak ikuskizuna. Honetan parte hartzen dute Uxue Alberdi, Jone Uria, Miren Amuriza eta Nerea Elustondo bertsolariak, Amaia Agirre gai-jarzitzaile lanetan arituko da eta musikariek ikak Arruti gitarren eta Eneko Sierra saxoan izango dira. Sarrera 6 euro.

— Herritarren txokoa —

Korrikaren materiala salgai

Martxoaren 19tik 29ra egingo da Korrika eta martxoaren 22an pasako da Lasarte-Oriatik. Urepelen hasi eta Bilbon amaituko da Euskal Herri osoa zeharkatuko duen ibilbidea. Dagoeneko salgai dago materiala herrian, Geltoki Kaleko AEKren Muntteri euskaltegian. Neskentzat eta mutilentzat kamisetak, txanoak, jertseak, buffak eta poloak bertan daudela jakinarazi dute AEK-ko kideek. Herritarrek euskaltegitik pasa daitezke materiala ikusi eta erostera, goiz eta arratsaldeko ordutegian.

Literatur Txokoa bertso-afaria

Martxoaren 14an bertso afaria antolatu du Irakurle Txokoko Xirimiri elkarteak, 21:00etan. Honetan parte hartuko dute Igor Elortza, Uxue Alberdi, Ane Labaka eta Harkitz Canok. Txartelak 20 eurotan eros daitezke Gure Etxea, Jalgi, Ilargi eta Trumoi tabernetan.

Nikaraguako kontsulatu mugikorra Donostian

Gurean bizi diren Nikaraguako herritarrek aukera izango dute euren paperak eta tramiteak Donostian bertan egiteko Madrilen kokatuta dagoen kontsulatura joan gabe. Kontsulatu mugikorra deritzona, Aldundia, Esperanza Latina eta El Güeguense elkarten ekimez ekarri da. Martxoaren 12 eta 13an Donostiako Julio Caro Baroja plazako 2. zenbakian, 3. solairuan izango da. Aurrez hartzidua hartu behar da 665 29 38 67 zenbakira edota consulnic.madrid@gmail.com helbidetan.

Bi txakur galdu dira

Pasa den igandean 2 setter-ingeles galdu ziren Lasarte-Orian, Zabaletallarratzetara artean. Garrazta baserriaren inguruan ere ikusi dituztela jakin dugu. Bat txuri-gorria eta bestea txuri-beltza. Ixusi dituztela uste baduzue, deitu mesedez 620 91 21 75 telefonora (Luis).

— Hemeroteka —

Duela 1131 ale

Martxoaren 8aren harira, 1998ko martxoaren 13an TXINTXARRI-k 9. Lilatziaren berri eman zuen bere azalera eramanda bertan parte hartutako zenbait herritarren argazkia. Donostian egiten den emakumeen lasterketa honetan herriko 11 emakume parte hartu zutela aipatzen zen, hori zen behintzat erredakzioak baiezatuta ahal izan zuen kopurua; Maite Civicos, Jone Miren Hernandez, Nieves Civicos, Amaia Insauti, Mila Olaiz, Ane Pavo, Mextze Beldarrain, Maite Collantes, Luz Maria Clemente, Elizabete Urruzola, Esther Fernandez, Olatz Urraka eta Toñi Hernandez.

Ane Pavok amarekin parte hartu zuen lasterketan, herritarren artean, korrikalari gazteena izanda, 9 urterekin.

Maite Civicos herritarrek hirugarren postua eskutan izan zuen arren, azkenean, 4. postuan geratu zen 20:14 minututan 5 kilometroko ibilbidea osatuta. 1998an 11 emakume parte hartu zuten eta urteik urtera kopuru hau handitzen joan da. Aurten 26. edizioan, aurreko zenbakian jaso bezala, herriko 112 lasterkari parte hartu zuten igandean egindako proban, gutxiira 4.000 emakume izan ziren korrika Donostiako kaleetan barrena.



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi eta eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Zuhaitzak mozten eta kimatzen

Lasarte-Oriako udalak hainbat zuhaitzen mozketa dela eta, azalpenak eman ditu

Herritar asko konturatu da azkenaldian herriko zuhaitz batzuk mozten edo kimatzen ari direla. Urteroko lana da, baina aurten hainbat mozketek herritarren galderak eta alderdi sozialistaren keza sortu dute. Horregatik Udalak azalpena eskaini nahi izan du. Era berean, hilabete honetan zuhaitz gehiago moztu eta kimatuko dituztela jakinarazi du.

Lasarte-Oriako Udalak azken asteetan zuhaitz mozketak direla eta sortu den ezinegona lasaitzeko azalpenak eskaini ditu. "Urtero, garai honetan, hainbat zuhaitz kimatzen dira: batzuetan zuhaitzak lehortu egin ohi direlako edo erorketa arriskuan daudelako eta bestetan beraien osasun egoera ez delako ona eta konponbiderik ez dutelako".

Udalak aipatu duenez, kasu askotan bizilagunak izan ohi dira sortzen dituzten enbarazuak direla medio zuhaitzak mozteko eskatzen dutenak.

Moztu eta birlandatu

Zenbait zuhaitz moztu dira dagoneko, horietako batzuk

Hipodromo Etorbidean kokatuta zeuden bi platanondoak. Enborrean egur ustelgarria zutelako eta adarren bat edo zuhaitza osorik erortzeko arriskua zegoela jakinarazi du Udalak.

"Bertan dauden bi platanondoak ez dira kendu, baina etorkizunean agian moztu egin beharko dira, adineko zuhaitzak baitira eta urtero kimaketa gogorrak jasaten baitituzte," gaineratu du.

Era berean, Zirkuitu ibilbidean kokatuta zegoen urkiak adar batzuk puskatuta zituen eta erorketa arrisku larria zegoen, beraz, kentzea erabaki du Udalak. Parke botanikoa kokatutako zeuden bi gereziondo eta kendu egin direla jakinarazi du.



Gaixo daudelako edo bizilaguneni kalteak eragiten dizkietelako mozten dituzte.

Eta Zumaburu kalean kokaturik zeuden japoniako bost gereziondoak "lehortuak" zeudenez, kendu eta beraien lekuan berriak jarriko direla adierazi dute.

Laister kenduko direnak

Beste zuhaitz batzuk etorkizun hurbilean kendu edo kimatuko dituzte. Esate baterako, Sasoetako Antxota kalearen hasieran kokatuta dagoen zedro handia. Auzotarrek hala eskatuta kendu egingo da, fatxadatik hurbilegi dagoelako eta arazoak sortzen dituelako.

Landaberri eskolako Pablo Garaikoetxea zentroko hamabost zuhaitz ere laster kenduko dira. "Batzuk gaixo daude eta adarrak edo zuhaitz osoa erortzeko arriskua dago. Azken urteetan zumarrak herriko kaleetatik kentzen ari gara oso adar ahulak dituztelako eta leku publikoetan arriskua sortzen dutelako. Beste zuhaitz gereziki dira eta gaixorik daude, onddoak dituzte eta hilzorrian dauden seinale da", adierazi dute Udaleko iturriek.

Beraz, "asko sentitu arren, aldekata hauek egin beharrekok dira eta zuhaitzak landatzeko beste antolaketak batzuekin bat egingo dute", esan dute.

Itzalaren koloreak

TXINTXARRI

Hilero bezala Jalgi Kafelantzokiak erakusketa berria dakar. Martxoan zehar, Rudy pintore nafarrak bere azken lanak aurkeztuko ditu.

10 oihalez osatutako bilduma berri honek "Itzalaren koloreak" du izenburu.

Bukatu berri dituen lan hauetan paisaiak dira nagusi eta urtaroket hauetan sortzen dituzten itzalak eta hauen kolore jokoak ikusi daitezke. Era honetara, lanek uda edo udazken giroan murgiltzen dituzte ikusleak.

Bere lana

Rudy pintorea autodidakta da eta horregatik, beratar honen lanetan Bidasoko eskola zaharrek zantzuak ikusi daitezke.

Olio margo, pintzel, zein beste bitartekoekin argiaren intentsitatea eta inguruko poesia irudikatzen ditu euskarri ezberdinetan, taula edo oihaletan.

Hau ez da Jalgi Kafelantzokian aurkezten duen lehen bilduma. 2012an, "Ibilbidea Euskal Herrian zehar" margoen erakusketak jarri baituzten pintore nafarrak.



Argi eta itzalek mendi edo itsas paisaietan sortu ditzazkeen koloreak aurkezten ditu Rudy margariak hamar lanetan.

R.A.S. Nº 18310 I.L.G.

MULTIOPTICAS

Delfina Varela
inaugurazio eguneko zozketako irabazlea

ZORIONAK!

Sartea:
Gamma atktuko leiar progresiboak
+ montura (1500€ko balioa)

ARRASATE BEASAIN BERGARA DONOSTIA EIBAR
ERRENTERIA IRUN ORDIZIA TOLOSA

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan